# HAUTESKUNDEAK AZAROA 2026

## POSTA BIDEZKO BOTO-ESKAERA – ORRI LAGUNTZAILEA

Orri lagungarri honekin batera doan inprimakia hautesleak bete behar izango duen eskabide-eredua da, dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialetik hautesle-erroldako inskripzio-ziurtagiria jasotzeko eta, horrela, azaroaren 29an egingo diren hauteskundeetan posta bidez botoa emateko prozedura abian jartzeko.

### NORK EMAN DEZAKE BOTOA POSTA BIDEZ?

Botoa posta bidez eman ahal izango dute bozketa-egunean botoa ematea dagokien herrian ez daudela aurreikusten duten hautesleek.

Atzerrian bizi eta aldi baterako Espainian dauden hautesleek posta bidezko botoa emateko dokumentazioa Espainiako helbide batera bidaltzeko eska dezakete. Horretarako, posta bidezko boto-eskaera bete behar izango dute "Atzerrian bizi" atalean "x" bat idatziz.

Gaixotasunagatik edo ezintasun fisikoagatik botoa eman ezin duten hautesleek ere posta bidez eman dezakete botoa.

Posta bidezko botoa eskatu ondoren, onartzen bada, ezin izango du botoa pertsonalki eman.

### POSTA BIDEZ BOZKATZEKO PROZEDURA:

#### A. ESKAERA

Interesdunek berek egin behar dute eskabidea.

Eskabidea eta bidaltzeko gutun-azala hautesle-erroldan inskribatuta dagoen probintziara bidali behar izango dira.

Gaixotasunaren edo ezintasunaren kasuan (ziurtagiri mediko ofizialaren bidez derrigorrez egiaztatuta), eskaera hauteslearen izenean egin dezake notarioak edo kontsuletxeak baimendutako pertsona batek, hautesle bakoitzarekin banan-banan egingo den dokumentuaren bidez, eta bertan ezin izango da hautesle bat baino gehiago sartu, ez eta hautesle bat baino gehiago ordezkatu ere (hautesleak dokumentu horiek doan egiteko eskubidea du). Kasu horietan, ordezkariak sinatu behar izango du eskaera.

Ziurtagiri medikoa eta baimena eskabidearekin batera bidali beharreko gutun-azalean sartu behar izango dira.

#### B. AURKEZTEKO LEKUA

Eskabidea, beteta eta sinatuta, Espainiako edozein Posta-bulegotan aurkeztu behar izango da. Jasotzeaz arduratzen den langileak interesdunari bere nortasun-agiria erakusteko eskatuko dio eta sinadura bat datorrela egiaztatuko du. Inola ere ez da onartuko nanaren fotokopiarik.

Posta arruntez bidaltzea ez da baliozkoa izango.

#### C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Deialdia egiten den egunetik bozketaren aurreko hamargarren egunera arte (azaroaren 19a) eska daiteke..

Hala ere, botoa posta bidez emateko eskubidea erabili nahi baduzu, ez itxaron azken orduan. Egin eskaera lehenbailehen.

#### D. POSTA BIDEZ BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoko Ordezkaritza Probintzialak posta bidezko botoa emateko behar den dokumentazioa bidaliko du azaroaren 9tik aurrera. Eskabidean adierazitako helbidera eta zure izenean bidaliko da.

Interesdunak berak dokumentazio hori jaso izanaren agiria sinatu behar izango du, bere nortasuna egiaztatu ondoren.

#### E. POSTA BIDEZ BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatu bidez bidali behar da, beranduenez azaroaren 25ean.